

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Nor dira gure enpresa aurrera eramateko behar ditugun bazkide edo hornitzaile nagusiak? eta zergatik dira garrantzitsuak?

Gure negozio eredia optimizatzeko, makina 3D montatu eta mantentzeko **informatikari** bat izango dugu gure artean.

Gizartean arriskuak murrizteko elkarte eta **talde feministekin** harreman estu eta iraunkorra izango dugu, gure produktuaren hartzaile nagusi gisa ikusten ditugulako, eta haiek behar izan dezaketen beste emakume* batzuekin harreman zuzena dutelako. Haiengandik lortuko dugu gure produktua zabaltzea publiko zabalago bati.

Gure produkzioarako behar ditugun baliabideak eskuratzeko, batez ere diseinuen pertsonalizazioan jarriko dugunez arreta, **persona sortzaile** eta **diseinatzaileekin** izango dugu harremana. Bezeroengandik iradokizunak hartzeko aukera izango dugu, eta pertsona sortzaileek osatzen dute gure lantaldea.

Begirada global bat izaten ere saiatuko gara, alde batetik bizi garen lurraldean dauden ohiturak kontuan hartzen saiatuko gara, jendearen atseginiokoak izateko objektuak, baina beste alde batetik, mundialki dauden joerak ere aztertuko ditugu, gure objektuak berritzeko asmoarekin.

Unibertsitatean edo goi mailako ziklo bat burutzen duten **ikasleekin** harremanetan sartzten saiatuko gara, batez ere arte ederrak ikasten dituzten emakumeekin*. Ikasleekin, harremanetan gure produktuen hedapena egiteaz gain, haiekin kolaboratuz, diseinu berritzaile gehiago izateko aukera zabalduko zaigu.

Bestalde, emakumeen elkarteekin harremana izango duen pertsonak, saltzeko abilezia izan beharko du, produktuaren beharra azaleratzeko. Horrez gain, neska hoiekin gertaera ezberdinak konpartitzeko aukera ere izango du, eztabaida informalen bitartez kontzientziazio lana egiten joateko.

Azkenik, gure lokalean **autodefentsa tailerrak** burutuko ditugunez, tailer hauek emateko gai diren emakumeekin ere harreman estua izango dugu, saio ezberdinak proposatu ahal izateko, berritzaileak izanki.

